

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000005-00 zenbakiduna.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

Lehena.- Prozeduraren instrukzioarekin eta antolamenduarekin jarraitzea eta ez etetea horren tramitazioko epeak, oinarritzko udal-zerbitzuen funtzionamendua mantentzeko, hau da, aurrekontuaren exekuzio egokia bermatzeko.

Bigarrena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERSONAL GASTUAK	200.000,00
2	GASTU ARRUNTAK	105.017,34
4	DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK	40.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	319.166,64
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		664.183,98

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	664.183,98
GUZTIRA		664.183,98

Hirugarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Zarautzen, 2020ko maiatzaren 27an
Alkatea